Cerradura con Llave: Los carros individuales tiene posibilidad de que se pueden bloquear para evitar el acceso no autorizado a áreas de almacenamiento específicas.

3 PUNTOS

Lectores de Tarjetas RFID: Integración con tecnología RFID para la autenticación de usuarios y el control de acceso a diferentes áreas de almacenamiento.

3 PUNTOS

Sistema con Posibilidad de personalización e integrar una gama de accesorios:

Separadores 3 PUNTOS

Cajones 3 PUNTOS

Sistema con posibilidad potencial de estar equipado con:

Conexiones para servicio técnico remoto basado en internet. 3 PUNTOS

- Acabados exteriores. (gama, procesos de aplicación de acabados)

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/16628 Pi4qu6BBOb https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202516628Pi4qu6BBOb

El proceso de acabado de las partes metálicas mediante pintura epoxi poliéster polimerizadas en túnel a 200°C previo tratamiento de desengrase y fosfatado anticorrosivo. 5 PUNTOS

Posibilidad de Acabado liso mate. 2 PUNTOS

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/16628 Pi4qu6BBOb https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202516628Pi4qu6BBOb

13.- PENALIZACIONES.

Serán las siguientes:

LOTE 1:

	Importe
Por el incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.	**3 % del importe de adjudicación por incumplimiento**
Retraso de más de 2 días sobre plazo de entrega, y por cada 2 días más	**600,00 €**
Retraso de 2 días sobre plazo de entrega	**300,00 €**
Retraso de 1 día sobre plazo de entrega	**150,00 €**

LOTE 2:

	Importe
Por el incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.	**3 % del importe de adjudicación por incumplimiento**
Retraso de más de 2 días sobre plazo de entrega, y por cada 2 días más	**600,00 €**
Retraso de 2 días sobre plazo de entrega	**300,00 €**
Retraso de 1 día sobre plazo de entrega	**150,00 €**

14.- ANEXOS.

ANEXO 1:

LICITACIÓN ECONÓMICA – LOTES 1 y 2 (TABLAS DE LICITACIÓN CON PRECIOS UNITARIOS)

ANEXO 2:

LICITACIÓN ECONÓMICA – LOTES 1 y 2 (TABLAS DE LICITACIÓN SIN PRECIOS UNITARIOS)

ANEXO 3:

DESCRIPCIÓN MODULACIÓN - LOTE 2

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/16628 Pi4qu6BBOb https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202516628Pi4qu6BBOb

ANEXO 4:

PLANOS DE IMPLANTACIÓN POR PLANTAS (No se exige la entrega de un replanteamiento de implantación). – LOTES 1 y 2

Getxo, 7 de Abril de 2.025.

EL RESPONSABLE DE INFRAESTRUCTURAS, OBRAS Y SERVICIOS. MEDIO AMBIENTE.

Fdo. Pedro María Sacristán González

LA CONCEJALA DE INFRAESTRUCTURAS, OBRAS Y SERVICIOS. MEDIO AMBIENTE

Fdo. Janire Ocio Celada

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4glR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4glR3zsC

KONTRATAZIOA ETA EROSKETAK
29 ABR 2025
CONTRATACIÓN Y COMPRAS

Getxo
bizi ezazu

BILLAMONTEKO ALGORTA KULTUR ETXEKO LIBURUTEGIRAKO BERARIAZKO ALTZARIEN HORNIDURA

LIZITAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

OMU/2025/2

2025eko APIRILA

V.3.0.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

1.- HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Plegu honen xedea da Getxoko Udalak honako zeregin hauek betetzeko deitutako prozedura irekia gidatuko duten baldintza tekniko bereziak zehaztea: BILLAMONTEKO ALGORTA KULTUR ETXEKO LIBURUTEGIRAKO BERARIAZKO ALTZARIEN HORNIDURA. Hona hemen loteen araberako banaketa:

1. LOTEA:

LIBURUTEGIKO APALTEGIAK (FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK, DVDAK, PRENTSA, ALDIZKARIAK, HAURRENTZAKO GAUZAK).

2. LOTEA:

ARTXIBO GURPILDUNA.

Pleguan jasotzen diren xehetasun teknikoekin gutxieneko baldintzak ezartzen dira eraikuntza-ezaugarriei eta materialen kalitateari begira, eta, horrekin bat, balorazio ekonomikorako eta hornigaiak kontratatzeko irizpideak adierazten dira.

2.- HORNIGAIEN XEHETASUNAK. PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

LOTE guztietan proposamen ekonomikoa bat etorriko da produktua hornitzaileei adjudikatzeko irizpidearekin. Horniduraren guztizko prezioa kalkulatzeko, batura aritmetikoa egingo da eskaintzen den prezio unitarioa LOTE bakoitzeko unitateen kopuruaz biderkatu ostean, "proposamen ekonomikoen taulak LOTEka" eranskinetan kalkulatu eta deskribatu diren beharren arabera. **Prezio horiek ez dute BEZa barne hartuko**.

Eskaintzen diren elementuen balorazio ekonomikoa bat etorriko da aipatutako eranskineko eta fitxa eta plano gehigarrietako unitate-kopuru zenbatetsiarekin eta deskribapenekin, kontuan izanik, bestalde, proposamen tekniko-ekonomikoek bermatu beharko dituztela, gutxienez, eskatzen diren gutxienekoak, eta kalitatearen eta prestazioen hobekuntza baloragarrien printzipiora moldatu.

Lote guztien gehieneko lizitazio-zenbatekoak ez ditu gaindituko **EHUN ETA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAIRU EURO ETA HIRUROGEITA LAU EURO-ZENTIMO (119.333,64€) (% 21EKO BEZA BARNE)**. Lizitatzaileak ezingo du adjudikatuko diren produktuengatik eskainitako prezioa aldatu; Getxoko Udalak, bere aldetik, eskumena izango du hornidura osatzen duten unitateen kopurua murriztu, handitu edo bertan behera uzteko.

Produktuen adjudikazioa LOTEka egingo da, "proposamen ekonomikoen taulak LOTEka" eranskinetan izendatutako LOTEen arabera eta haietako bakoitzaren gehienezko diru-zenbatekoari eutsiz, eta ezin izango da lizitazio-taulan produktu bakoitzerako zehazten den gehienezko prezio unitarioa gainditu, BEZA KANPO.

- 1. LOTEA: LIBURUTEGIKO APALATEGIAK (FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK, DVDAK, PRENTSA, ALDIZKARIAK, HAURRENTZAKO GAUZAK). 80.053,98 € gehi 16.811,34 € % 21eko BEZari dagokiona.
- 2. LOTEA: ARTXIBO GURPILDUNA 18.568,86 € gehi 3.899,46 €

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

% 21eko BEZari dagokiona.

Proposamenetan jasotako eta deskribatutako produktuengatik eskaintzen den unitateko lizitazio-prezioa **balioduna izango da 1 URTEZ**, hornidura-kontratua sinatzen denetik. **Epea bat dator kontratuaren iraupenarekin, 1 URTE, alegia.**

Oinarri Teknikoen Plegu honetan azaltzen da gutxienezko zer ezaugarri tekniko eta eraikuntza-irizpide aplikatuko zaizkien eskaintzen diren produktuei eta horniduran bete beharko diren zerbitzu-baldintzak; hau da:

- Erreferentziazko araudi aplikagarriak (lehengaiak, gutxieneko kalitatea, saiakuntzak).
- Produktuaren ezaugarriak (materialak, neurriak, gama, akabera, ezaugarri teknikoak, produktu bukatuaren gaineko saiakuntzak).
- Berme-epea (produktu bukatuaren bermea, gamaren iraupena, produktuak eta ordezko piezak berrornitzeko bermea).
- Entregatzeko epea eta beste.

Proposamenean lizitatzaileek argi eta beren hitzetan deskribatuko beharko dute produktu bakoitza, haren ezaugarri orokorrak, neurriak, marka eta seriea azalduz. Proposamenean egiten den produktuen deskribapena eta Getxoko Udalak eskatutakoa bat ez badatoz, desadostasunak Getxoko Udalaren alde jokatuko du.

LOTE bakoitzaren lizitazioan eskaini eta sartu beharreko produktuek "Baliokidetasuna" irizpidea beteko dute kalitateari eta prestazioei dagokienez, Plegu Tekniko honetan deskribatzen eta eskatzen denaren arabera, Proposamenarekin batera, lizitatzaileek eskaintzen duten produktu bakoitzaren fitxa tekniko laburtu bat aurkeztuko dute, kasuan kasuko produktuaren alderdi hauek deskribatuz: egiturazko materialak eta akabera (materiala, lodiera...), burdineria, sarraila mota, bandak, erregulazioak, mugikortasuna, moldakortasuna, suaren kontrakotasuna, dentsitateak, osaera, eta abar produktu mota bakoitzari dagokionaren arabera.

Ekipamenduak egokitu zaizkion helburuen araberako ezaugarriak izango ditu. Hala ere, erabilera bereko geletan markak eta modeloak, ahal delarik, homogeneoak izango dira, baina gela bakoitzeko ezaugarri estetikoei eta geometrikoei egokituak, eta guztiz bat etorriko dira proiektuan ezarritako irizpide estetikoekin eta haien kokaleku izango diren gelen ezaugarri geometrikoekin.

Horniduraren adjudikaziorako prezioan kontzeptu hauek sartzen dira:

- Produktuen diseinua eta eskatutako ezaugarrien justifikazioa.
- Egile-eskubideak, diseinuaren Copyrighta eta antzekoak.
- Haien fabrikazioa, materialen ekarpena barne.
- Diseinuagatiko eta fabrikazioagatiko eskulanaren kostuak, haien gizarte kostuekin.
- Garraioa, bilgarriak eta aseguruak.
- Biltegiratzea garraioan eta ematean, bai eta, haien aseguruak ere.
- Produktuak banatzea eta muntatzea dagozkien aretoetan.

- Bilgarri eta babes guztiak kentzea, eta hondakinak kudeatzea bai eta kudeatzaile baimendu bati eramatea ere.
- Materialen kalitateari, tratamenduei eta saiakuntzei buruzko ziurtagiriak, produktu fabrikatuarenak eta osagaienak.
- Diseinatu, fabrikatu eta muntatzeko prozesuetan jarraitutako kalitate-kontroleko prozesuak zehaztea, horiek onartzeko beharrezkoak diren laborategiko saiakuntzak barne hartuta.
- Ordezkoak salmenta osteko baldintzen arabera pilatzea.
- Eskatutako erakusgaiak eta prototipoak, haien hornidura, muntaketa eta kentzea barne hartuta.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025170825h4gIR3zsC

- Gastu orokorrak eta mozkin industriala.
- Inportazio-zergak eta -eskubideak, halakorik badago eta BEZa bakarrik salbuetsita.

Baldin eta kontratuaren indarraldian egiazko beharrak handiagoak badira hasiera batean zenbatetsitakoak baino, kasuan kasuko aldaketa izapidetu beharko da. Kontratua inguruabar horren ondorioz aldatu ahalko da SPKLren 204. artikuluak xedatutako baldintzetan. Aldaketa hasieran onetsi den gehieneko aurrekontua agortu baino lehen izapidetu beharko da.
Kontratua aldatu ahalko da bere indarraldian **gehienez adjudikazioaren/kontratuaren zenbatekoaren ehuneko hogeira arte**.

3.- KALITATEAREN ZIURTAGIRIAK

4. eta 5. ataletan adierazten diren xehetasun teknikoekin, lehengaien ezaugarriak eta eskaini beharreko produktuen erreferentziazko eraikuntza irizpideak zehazten dira, eta ekintza- eta zerbitzu-arlo guztien hornidura-beharrei aplikatuko zaizkie.

Eskaintzen diren produktuek irizpide eta gutxieneko xehetasunak beteko dituzte, funtzionalki eta egitura aldetik.

Enpresa lizitatzaileek beren eskaintzaren kalitate-ziurtagiriak eta araudia bete izanaren egiaztapenak aurkeztuko dituzte.

Eskakizun hori betetzeko, Laborategi Independenteek emandako ziurtagiriak aurkeztuko dituzte; laborategi horiek Egiaztatze Erakunde Nazionalaren edo jatorrizko herrialdeko baliokidearen oniritzia izango dute, marka aitortua izango dute eta ez dute loturarik izango enpresa fabrikatzailearekin. Ez da ziurtagiririk eskatuko produktuak era ez-estandarrean eta eraikuntza-eskakizun berezien arabera fabrikatu behar badira, baina bai materialen bai akaberaren aldetik, plegu tekniko honetan ezarritakoa bete beharko da, eta produktu bukatuetarako eskatzen den bermea formalizatu.

Ziurtagiriren bat gaztelaniaz ez badago, haren itzulpen laburra erantsiko da, eta balioduna izango da laborategi emaileak adierazitako epeak iraun bitartean.

GETXOKO UDALAk ziurtagiri horien jatorrizkoa edo kopia askietsia eskatu ahalko du, beharrezkoa baderitzo hala egiteari dokumentuak egiaztatzeko.

Ez zaie baliorik aitortuko ez lizitatzailearen adierazpenei ez eta berak edo haren hornitzaileek emandako kalitate-ziurtagiriei ere.

Ez dituzte saiakuntza bakoitzaren ziurtagiriak aurkeztu beharko markaren ziurtagiri bat aurkezten duten laborategiek, baldin eta ziurtagiri hori laborategi ziurtatu batek emanda badago eta laborategiaren araubidean aurreikusten badira, gutxienez, plegu honetan jasotako saiakuntzak edo beste herrialde batzuetan horien baliokide direnak.

Lizitatzaileak ziurtagiri osagarririk eskuratu badu, aurkeztu ahalko ditu, eta aintzat hartuko dira produktuaren kalitatea baloratzeko orduan. Lizitatzaileak, halaber, aurkeztu ahalko ditu, eta balioduntzat joko dira, eskainitako produktuen ziurtagiriak, indarrean baldin badaude eta erakunde egiaztatzaileak eskatzen dituenen baliokidetzat onartuta badaude.

GETXOKO UDALAk eskubidea du egoki deritzen saiakuntzak egiteko edozein produktu edo materialekin, enpresa lizitatzailearen kontura. Saiakuntza horiek adjudikazioa indarrean egon bitartean ere eskatu ahalko dira, kasu horretan enpresa adjudikaziodunaren kontura.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

Edonola ere, eskaintzak xehetasunezkoak eta argiak izango dira, eta haietan, produktuaren osagaiak ez ezik haren modularitate-aukerak, akaberak, koloreak eta abar zehaztuko dira. Aurkeztu ahalko dira, orobat, proposamena argitzeko lagungarriak diren katalogoak edo bestelako elementuak (fitxa teknikoak, infografiak, materialen taulak, muntaketarako planoak eta abar). Eskaintzen diren modelo guztiak argi identifikatuta egongo dira beren izenarekin, eta bat etorriko dira lizitazio-koadroko eskakizunekin.

4.- MATERIALEN KALITATEA (ERREFERENTZIAZKO ARAU KOMUNAK MATERIALAREN ARABERA).

Atal honetan zehazten da gutxieneko zer kalitate-maila izan behar duten eskatutako produktu bakoitzaren materialek eta nolako saiakuntzak egiaztatu behar diren lehengaien kasuan eta aplikazio-prozesuen kontrolari dagokionez.

4.1. LEHENGAIEN GAINEKO PROBAK

4.1. A. ALTZAIRUZKO XAFLA

Xafla-kalitate hauek onartuko dira:

Hotzean ijeztutako altzairuzko xafla, kalitatea: DC01eta DC04 bitartekoa, arau honen arabera: UNE-EN 10130:2008.

Beroan ijeztutako altzairuzko xafla, kalitatea: DUNE EN 1021-1/21 eta DUNE EN 1021-1/24 bitartekoa, arau honen arabera: UNE-EN 10111:2009.

Zehaztapena, hauen arabera: UNE-89401-2:2008 eta UNE 89401-3:2008

4.2. FABRIKAZIO-PROZESUEN GAINEKO KONTROLAK

4.2. 4.2.A. METALAREN GAINEAN APLIKATUTAKO PINTURAK

SAIAKUNTZA	ARAUA	ZEHAZTAPENA
Mintzaren gogortasuna (PERSOZ)	UNE-EN ISO 1522 :2007	Informazio-balioa
Estaldura organikoen erresistentzia etxean erabiltzen diren agente kimikoen aurka	UNE 48027:1980	Produktua: agente garbigarria, ur destilatua, kafe-infusioa, te-infusioa, kola-freskagarriak, desnaturalizatu gabeko etanola % 48an Sailkapena 5 (24 h) Sailkapena 4 (72 h)
Kalte mekanikoekiko erresistentzia. Itsaspena	UNE-EN ISO 2409:2007	Sailkapena 0
Masa baten erorketa	UNE-EN ISO 6272-1:2004	Erorketa-altuera, 500 mm. Euskarria arraildu edo askatu gabe. (7)
Hezetasunarekiko erresistentzia	UNE-EN ISO 6270-1:2002	Estaldura eraldatu gabe.
Geruzaren lodiera	UNE-EN ISO 2808 :2007	Gutxieneko lodiera (l) ageriko ataletan: $l \leq 25$ µm pintura likidoaren kasuan. $l \leq 40$ µm hauts-pinturaren kasuan.
Zahartze azkartuaren saiakuntza. Metodoa: esposizioa argi ultramorearen eta kondentsazioaren ziklo txandakatuetan	UNE-EN ISO 11507 :2007	24 h UV-B lanparak Distira-galera $\leq$ % 25 Kolore-aldaketa $\leq$ 4 (grisak)

Zehaztapena, hauen arabera: UNE-89401-1:2008, UNE-89401-2:2008 eta UNE 89401-3:2008

(7) Bakarrik aplikagarria gainazal horizontaletan, adibidez armairuen apalategietan.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025170825h4gIR3zsC

4.2. B. BESTELAKO AKABERAK (ESTALDURA ELEKTROKIMIKOAK, ALUMINIO ANODIZATUA...)

SAIAKUNTZA	ARAUA	ZEHAZTAPENA
Hezetasunarekiko erresistentzia (KFW zikloa)	UNE-EN ISO 6270-1:2002	Herdoiltzerik ez 100 ordu igarota (10)
Hezetasunarekiko erresistentzia (KFW zikloa)	UNE-EN ISO 6270-2:2006	Ageriko elementuak: 3 ziklo (11) Ezkutuko elementuak: 2 ziklo (11) Aluminio leunduzko oinarriak: Herdoilgune txikiak onartzen dira 24 ordu igarota (10).

Zehaztapena, hauen arabera: UNE-89401-1:2008 eta UNE 89401-3:2008
(10) Zehaztapena, bakarrik balioduna aulkietarako.
(11) Zehaztapena, bakarrik balioduna armairu eta artxibategietarako.

5.- PRODUKTU BAKOITZAREN BETEKIZUN TEKNIKOAK. ARAU APLIKAGARRIAK (PRODUKTU BUKATUEN GAINEKO SAIAKERAK).

Produktu guztiek bete beharko dituzte gaur egungo ergonomia-, estetika- eta segurtasun-eskakizunak eta -balioak.

Jarraian adierazten diren neurriak gutxi gorabeherakoak badira ere, lizitatzaileek ahalik eta gehien egokituko dute beren eskaintza neurri horietara.

5.1. 1. LOTEA: LIBURUTEGIKO APALATEGIAK (FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK, DVDAK, PRENTSA, ALDIZKARIAK, HAURRENTZAKO GAUZAK).

A.1. Oinarrizko hornigaiak dira funts bibliografikoak eta mediatekakoak biltegiratzeko eta ikusgai erakusteko.

Apalategiak metalikoak, modularrak eta erraz muntatzeko eta desmuntatzeko modukoak izango dira. Egiturazko indargarriak eta lotura-sistema linealak izango dituzte. Akabera exposi pintura-hautsezkoa, 25 mikra lodi gutxienez.

Goialdean errotuluetarako euskarria izango dute, eta zokaloa behealdean.

2 mota zehazten dira:

- Apalekin (apal zuzenak, makurtuak eta edukiontziak)
- Tiradera ateragarriekin (mediateka).

Osagai horiek zehaztapen hauen araberakoak izango dira:

B.1. APALAK

Metalikoak, hotzean konformatutako altzairu-xaflekin fabrikatuak eta EN-10130-08 arauaren zehaztapenak beteko dituzte.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

Altuera erregulagarrikoak —50 mm-rik behin, gehienez—, eta xafla, 0,7 mm lodi gutxienez.

Atzealdean tope bat izango dute, aurrealdeko tope gisa erabili ahalko dena muntaiaren posizioa aldatuz gero edo aldizkarien apal-erakustegi gisa baliatuz gero.

Eskaintzako modulu guztiek 2. LOTEaren proposamen ekonomikoen taulan zehazten diren apalak izango ditu, oinarriko apala eta sabaia barne.

Apalek eutsi beharreko gutxieneko karga: 90 kg 800 mm-ko luzerakoek; 80 kg 900 mm-ko luzerakoek; 70 kg 1.000 mm-ko luzerakoek eta 60 kg 1.200 mm-koek.

Apal zuzenek etiketa-leku gardena izango dute, eta hagaxka metaliko mugigarria liburuei eusteko.

B.2. PROFILAK ETA LANGAK

Metalikoak izango dira, gutxienez 1 mm lodi, muga elastiko handiko altzairuzko zumitzetik abiatuta.

Langak profilak alboetatik elkarri lotzen dizkioten elementuak dira, eta egonkortasuna eta zurruntasuna ematen dute zeharretara.

Profilak oinekin tinkatuko dira behegainean. Oin horien materiala ez-labaingarria eta erregulagarria izango da.

Apalak eta profilak elkarri eusteko edo lotzeko kakoak 1,5 mm lodi izango dira gutxienez; erabilera motaren arabera, bikoitzak edo bakunak izango dira, eta apal bakoitzaren altuera erregulatzeko aukera emango dute.

B.3. ALBOAK

Muturretako eta tarteko alboekin apalategiak luzetara eta moduluka itxi ahalko dira; itsuak eta barne-estalkidunak muturretakoak edo estalki itsu bikoizdunak tartekoak; gutxienez 0,7 mm lodi den altzairu-xaflaz fabrikatuak, EN-10130-08 arauaren arabera.

B.4. ATZEALDEA

Atzealdeak apalategiaren atzea itxiko dute. Itsuak izango dira, eta gutxienez 0,7 mm lodi den altzairu-xaflaz fabrikatuak, EN-10130-08 arauaren arabera. Altuera osorik hartu edo moduluka (guztizko altueraren % 50etik gora), eurak izango dira txarrantzatze-elementua.

B.5. TIRADERAK

Mediatekako tiraderak egituran bertan muntatuko dira, berau eraldatu gabe, eta metalikoak izango dira, irristailuen bidez ateragarriak; barrualdeko altuera CD-DVDak sartzeko modukoa, artekatua, iraulketa aurkako bereizgailuduna eta aurrealdeko heldulekuduna.

Gutxieneko karga: 60 kg. Altuerak: 100, 150, 200 mm, eta aurrealdeak apalategiaren zabalerara modulagarriak.

Hotzean ijeztutako xafla, 1 mm-koa; kalitatea: DC01 (EN 10130:2006).

B.6. ORGA LAGUNGARRIAK

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025170825h4gIR3zsC

Orga lagungarria, liburutegiko funtsak garraiatzeko eta neurri hauetakoa, gutxi gorabehera: 800x500x1.000 mm. Egitura eta apalak ijeztuak. Aurrealde bikoitza; 4 apal, arrastatzeko heldulekua, eta gurpil balaztadunak.

B.7. DIMENTSIOAK

Eskaintzak erkagarriak izan daitezen, modulazio hauek zehaztu dira:

Hasierako modulua:

- Zabalerak: 900 eta 1.100 mm
- Sakonerak: 310 eta 610 mm
- Altuerak: 1.200, 1.500, 2.100 eta 2.400 mm

Luzapen-modulua:

- Zabalerak: 900 eta 1100 mm
- Sakonerak: 310 eta 610 mm
- Altuerak: 1.200, 1.500, 2.100 eta 2.400 mm

5.2. 2. LOTEA: ARTXIBO GURPILDUNA

A.1. ARTXIBO GURPILDUNA.

Gordetzeko eta biltegiratzeko elementua da, modularra, desmuntagarria eta mugikorra. Horretarako, trakzio-orga izango du eta joan-etorriak sistema bideratu eta gidatuaren gainean egingo dira.

Bere aplikazioari eta erabilerari esker, azaleraren arabera artxibatzeko edukiera areagotzen da, sarbide finkoak baliogabetzen baitira eta espazio horiek karga-elementu desplazagarriekin gaitzen baitira.

Manipulatzeko orduan, arina izango da. Xede horrez behe-tentsioko trakzio-sistema motorduna erabiliko da eta maniobra-panelaren bitartez erraz kontrolatu eta manipulatu ahal izango da.

Eraikuntza honako elementuetan oinarritzen da eta, beraz, eskainitako prezioan sartu beharko dira:

- GAINAZALEAN gidatzeko errailak eta ohol jasoa partikulen taularekin jartzeko.
- Oinarri edo orga mugikorrak, habeak eta langetak barne.
- Transmisio-sistema (behe-tentsioko motorduna, integratua, eta errodadura engranaje horzdun integratuaz hornitua).
- Apalategiak eskatutako zehaztapen teknikoaren arabera.
- Segurtasun-sistema integratuak.
- Mugimendua eta gelditua kontrolatzeko, moduluko aktibazio/desaktibazio botoien bidez.
- Talde trinkoen segurtasun-itxitura orokorra.
- Giltzarik gabeko korridorearen blokeoa.
- Giltzarik gabeko orga-multzoetara ez iristeko lurzoruaren blokeoa.
- Hasierako eta amaierako unitatea iraultzearen kontrakoa; hobekuntza bezala, aplikazio orokorra baloratuko da.
- Kanpoko albo itsuak.
- Atzealde itsua azkeneko moduluetan.
- Kanpotik eta apalategien arabera identifikatzeko bisoreak.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

A.2. APALAK

Metalikoak, hotzean konformatutako altzairu-xaflekin fabrikatuak eta EN-10130-08 arauaren zehaztapenak beteko dituzte. Topea izango dute atzealdean.

Altuera erregulagarrikoak —50 mm-rik behin, gehienez—, eta xafla, 0,7 mm lodi gutxienez.

Eskainitako modulu bakoitzak 7 apal izango ditu, oinarria eta sabaia barne.

Apalek eutsi beharreko gutxieneko karga: 90 kg 800 mm-ko luzerakoek; 80 kg 900 mm-ko luzerakoek; 70 kg 1.000 mm-ko luzerakoek eta 60 kg 1.200 mm-koek. Gehiagokoak izan ahalko dira, azpian sendotzen badira.

A.3. PROFILAK ETA LANGAK

Metalikoak izango dira, gutxienez 0,7 mm lodi, muga elastiko handiko altzairuzko zumitzetik abiatuta.

Langak profilak alboetatik elkarri lotzen dizkioten elementuak dira, eta egonkortasuna eta zurruntasuna ematen dute zeharretara.

Apalak eta profilak elkarri eusteko edo lotzeko kakoak 1,5 mm lodi izango dira gutxienez; erabilera motaren arabera, bikoitzak edo bakunak izango dira, eta apal bakoitzaren altuera erregulatzeko aukera emango dute.

A.4. ALBOAK

Azkeneko alboak muturretan apalategiak ixteko erabiliko dira, itsuak eta EN-10130-08 arauaren arabera altzairuzko xaflarekin fabrikatuak izango dira. Gutxieneko lodiera: 0,7 mm-koa.

A.5. DIMENTSIOAK

Eskaintzak erkagarriak izan daitezen, modulazio hauek zehaztu dira:

Hasierako modulua:

- Zabalerak: 1.200 mm
- Barru-atzeak: 300 mm
- Altuerak: 2.750 mm

Luzapen-modulua:

- Zabalerak: 1.200 mm
- Barru-atzeak: 300 mm
- Altuerak: 2.750 mm

PRODUKTU BUKATUEN GAINEKO SAIAKUNTZAK

ARTXIBATZEKO ALTZARIAK

SAIAKUNTZA	ARAUA	ZEHAZTAPENA
Egiturazko erresistentzia	UNE 11016 :1989	UNE 11023.2:1992
Egonkortasuna	UNE 11017 :1989	Saiakuntza-maila: 4

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

6.- SEGURTASUN-ARAUAK

Gutxieneko xehetasunak bete behar dira osasunaren eta segurtasunaren arloan Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen, Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudiaren (39/1997 ED) eta ondoz ondoko aldaketen eta eguneratzeen arabera.

Araudia betetzeko, besteak beste, ondorengo alderdiak kontuan hartu behar dira:

- LAPLaren 16. artikuluaren arabera arriskuen ebaluazioa eta Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudiaren arabera prebentziozko ekintzak planifikatzea.
- Langileen informazio eta prestakuntzari buruzko betebeharrak betetzearen ziurtagiriak LAPLaren 18. eta 19. artikuluen arabera.
- Lan Agintaritzaren eskura dokumentazioa, LAPLaren 23. artikuluarekin bat.
- Enpresa lizitatzaileek Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudia betetzen dutela egiaztatu beharko dute eta, horretarako, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dituzte.
- Gainera, enpresa adjudikaziodunak lan arriskuen prebentzioaren eremuan GETXOKO UDALAREN enpresa-jarduerei buruzko koordinazio-protokoloa bete beharko du.

7.- INGURUMEN-BALDINTZAK

Atal honetan produktuen materialetan desiragarriak diren kalitate-mailak deskribatzen dira. Eskaintzen duten produktua osatzen duten materialei buruzko zehaztapenak bete beharko dituzte lizitatzaileek. Gainera, zehatz-mehatz bereiziko dituzte dokumentazio teknikoan produktu bakoitzaren materialak eta berariaz aplikatzen zaizkien tratamenduak. Hala, ez dira baliozkoak izango produktu zehatzaren deskribapen orokorrak, zehatzak ez direnak.

ALTZAIRUZKO XAFLETARAKO

Bulegoko altzarien industrian materialik erabilienak altzairua eta aluminioa dira. Beste metal batzuk erabiltzen dira ere, hala nola letoia eta brontzea, baina askoz kopuru txikiagoan erabiltzen dira.

Altzairuari dagokionez, ingurumen-arazoa zepak sortzean eta hautsa, karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak eta sufre oxidoak igortzean oinarritzen da, meatzaritza-prozesuaren inpaktuaz gain (eragina paisaian, poluzio akustikoa metalekin, etab.).

Aluminioaren kasuan, ingurumen-alderdi nagusia bauxita azken aluminio bihurtzeko beharrezko energiaren kontsumoan oinarritzen da (altzairuaren kasuan baino 8 aldiz gehiago behar da). Gainera, fluorra duten konposatuak eta uretara metal astunak igortzen dira.

Bi metalek, berriz, birzikla daitezke eta, beraz, erabileraren ondoriozko ingurumen-inpaktua murrizten da.

Positiboki baloratuko da bigarren fusioko metalak erabiltzea eta bere bizi erabilgarria amaitutakoan produktua erraz desmunta daitekeela ziurtatzea, ondoren birziklatu ahal izateko.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4glR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4glR3zsC

MARGORAKO

Ohiz estaldura-sistemak produktuen gainazalak babesteko (egurra, korrosioaren kontra, etab. babestea) eta diseinatu nahiz apaintzeko (kolorea, distira) erabiltzen dira.

Altzarietan erabiltzeko gainazaleko tratamendu ugari dago, bai erabilitako estalduraren mota kontuan hartuta (disolbatzailerik gabeko sistemak, poliester asegabearen estaldurak, PUR estaldurak, etab.), bai aplikatzeko moduari erreparatuz (estaldura likidoen spraya, murgiltzea eta estaldurak langartzea.

Gainazaleko tratamenduen ingurumen-alderdi nagusiak hurrengoetan laburbil daitezke:

KOLak (Konposatu Organiko Lurrunkorrak) igortzea, estaldura likidoak erabiltzearen ondorioz.

Bainuetan erabilitako substantzia arriskutsuak (bereziki, metal astunak) igorri edota isurtzea.

Estaldura likidoak eta hautsezkoak gehiegi langartzeagatik isuriak.

Pisuaren % 1etik gorako kantitateetan dauden gainazaleko tratamenduetarako positiboki baloratuko da KOLak ez igortzea eta disolbatzaile aromatikoez ez baliatzea.

Era berean, 1999/45/EE Zuzentarauaren arabera, inhalatuak direnean, gainazaleko tratamendurako eragileak kantzerigeno, ugalketa-sistemarako kaltegarri, mutageniko, toxiko edo alergeniko bezala sailkatuak ez egotea baloratuko da.

8.- EMATEKO EPEAK

Kontratua sinatzen denean, instalazioen obraren egoeraren arabera, emateko egutegia proposatuko zaio adjudikaziodunari. Ildo horri eutsiz, **45 egun naturalekoa** izango da eman eta muntatzeko epea GETXOKO UDALAk eske bakoitzaren errekerimendua idatziz egin ondoren, hartu-agiria jaso eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita. Hornidura bakoitzerako baimendu den posta elektronikoz egingo da, eta ez bada betetzen, zigor ekonomikoa jarri edo kontratua suntsiaraz daiteke. Gainerako hornitzaileekin koordinatu behar denez, eta irekitzean ez atzeratzeko, zehapena jarri ahalko da 13 - ZEHAPENAK atalaren arabera hornitu, muntatu eta zerbitzuan jartzeko atzeratzen den egun natural bakoitzeko. Gainera, eskubidea gordeko du Getxoko Udalari proposatzeko kontratua suntsiaraztea kalte-ordainik gabe.

Hala eta guztiz ere, obra berriaren prozesua denez, GETXOKO UDALAK epean entregatu eta muntatzea ezinezkoa dela uste badu, hornitu beharreko elementuak enpresa adjudikaziodunaren instalazioetan biltegiratuak egongo dira gehienez 60 egun naturaleko epez, entregatzea kalkulatuta zegoen datatik zenbatzen hasita. Adjudikaziodunari 15 egun natural lehenago emate-dataren aldaketa jakinaraziko zaio.

BILLAMONTE-GETXOKO ALGORTA KULTUR ETXEKO aretoetan instalatuko dira.

Barne egongo dira produktuak manipulatzea eta muntatzea nahiz berraztertzea erabat amaitutakoan. Ikusten diren akatsak edo kalteak **30 egun naturaletik** beherako epean konponduko dira.

9.- BERMEAK (PRODUKTU BUKATUA ETA GAMAREN MANTENTZE-LANAK) ETA MANTENTZE-LANAK.

Fabrikazioaren ezkutuzko kalteak eta akatsak direla eta, gutxienez 2 urteko bermea eskatuko da lote bakoitzean adjudikatu diren produktu bukatuetarako eman eta muntatzen diren egunetik zenbatzen hasita. Epe luzeagoak baloratuko dira.

Bermea tokian bertan gauzatuko da, eta gastu guztiak sartuko dira: material kaltetuak berritzea, jatorrizko ordezkoak, eskulana, joan-etorriak eta edozein laguntza mota.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

Laguntza teknikoari eta erantzuteko denborari dagokienez, gutxieneko baldintzek bat etorri beharko dute saldu osteko Laguntza Teknikoan (mantenua) eskatzen denarekin.

Bermean ondorengoak sartuko dira:

- - Premiaz konpontzea.
- - Akatsa edo anomalia dela eta, ordezkatzea.

Bermearen epea pleguaren xede diren ekipoen instalazioa eta funtzionamendua onartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Dena den, onarpena jasotze-aktan agerraraziko da. Gehienez hilabete baten buruan egingo da harrera-akta.

Enpresa lizitatzaileek une oro bermatuko dute beren produktuak Baldintza Teknikoen Pleguan jasoak dauden lehengaiekin, akaberekin eta neurriekin fabrikatzen direla. Era berean, horren arauei edo gomendioei jarraikiz, segurtasun pasiboaren irizpidepean diseinatuak eta saiatuak egongo dira.

Idatziz baieztatzeko eskatzen da gutxienez 5 urteko bizi aktiboaren epealdia kontratua sinatzen denetik "**serieko merkaturatzean**" eta gama merkaturatzearekin lizitazioko eta adjudikatutako produktu guztientzat.

Idatziz baieztatzeko eskatzen da gutxienez 2 urtez jarraitzea "**serieko merkaturatzea**" amaitzen denetik berariaz adjudikatu diren produktuentzat, baldin eta produktu horiek lizitazioan badaude.

Aurreko 2 epealdiak amaitzen direnetik, idatziz baieztatzeko eskatzen da gutxienez 3 urtez **osagaien eta ordezkoen eskuragarritasuna** konponketetarako.

SALDU OSTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA (MANTENTZE-LANAK)

Ordezkatutako hornitzaileei dagokienez, lizitatzaileek konpromiso-gutunak eta eskaintzaren onespenak aurkeztu beharko dituzte lizitazioan jartzen diren produktuak badira.

Eskaintzan barne hartuko da **SALDU OSTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA**. Beraz, **BI (2) urtetan** harrera-aktaren egunetik zenbatzen hasita produktuen mantentze-lana egingo da, gutxieneko baldintza hauekin:

- Gutxieneko laguntza teknikoa emango da (gorabeherak jasotzea eta estaldura teknikoa) telefono bidez, 24 orduz eta urteko 365 egunetan. Xede horrekin, adjudikaziodunak telefono-zenbakia eta posta-helbide elektronikoa emango ditu, hornitutako produktuei eta beren instalazioari buruzko gorabeherak jakinarazteko.

- Gehienez 24 orduren barruan erantzungo da. Funtzionalki berrogeita zortzi (48) ordutan konponduko da.

Konponketari dagokion esku-hartzea gauzatu ondoren Getxoko Udala ados ez badago, elementu kaltetuak ordezkatuko dira eta original bat jarriko da ebazteko denboraren barruan, eta tokian ez badute, ahalik eta azkarren ordezkatuko dute, zehaztutako denboran ezin dela egin idatziz arrazoitu ostean. Konpontzeko edota ordezkatzeko prozesua adjudikaziodunaren langileek egingo dute. Hala, erantzute-denboraren barruan agertu beharko dute material kaltetua dagoen tokian.

Mantendu behar diren altzariak erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eraginda konponduko dira, zerbitzuaren balizko etenaldiak minimizatzeaz gain. Horregatik, Getxoko Udalak zehazten duen ordutegian eta egunean egingo dira.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

10.- PRODUKTUAREN DOKUMENTAZIOA ETA KAUDIMEN TEKNIKOARI NAHIZ EKONOMIKOARI BURUZKOA.

PRODUKTUA

Lizitatzaileak bere proposamenean hurrengo dokumentuak erantsiko ditu:

10.1. Produktuaren xehetasuna

Lizitatzaileak bere proposamenean modelo bakoitzaren diseinuari buruzko deskribapen zehatza sartuko du eta honakoen inguruko dokumentazio teknikoa erantsiko da:

- Materialak eta beren jatorria.
- Berak fabrikatu ez dituen elementuak izanik, produktuan sartzen direnak: burdineria, mekanismoak, etab.
- Finkatzeko sistemak.
- Egituraren deskribapena.
- Suarekiko portaera.
- Etab.

Oro har, bere proposamena eta produktuaren ezaugarriak azaltzeko, egokitzat jotzen duten dokumentazio teknikoa (fitxa teknikoak, renderra, etab.) aurkez dezakete.

10.2. Mantentze-lanei buruzko eskuliburua

Mantentze-lanei buruzko eskuliburua prestatuko da eta maiztasun, tresna nahiz erreminta eta produktuei buruzko gomendioak definituko ditu hurrengo eragiketetarako:

- Garbiketa
- Lubrikazioa, behar bada.
- Elementu mugikorrak berrikustea.

10.3. Hornitzaileen eta fabrikatzaileen kalitate-ziurtagiriak.

Lizitatzaileek eskatutako ziurtagiriak aurkeztuko dituzte, kalitatea ziurtatzeko prozesuetan lortu badituzte. Propioak eta beren hornitzaileenak izango dira, lehen aipatu bezala, **eskainitako produktuen** ingurumen eta eko-diseinuaren irizpideei dagozkienak barne.

KAUDIMEN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA

10.4. Kaudimen teknikoa eta hornidura egokitzeari dagokiona.

Ondorengoak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Langileak eta prestakuntza profesionala.- Gutxienez logistika eta muntaketaren buru-ofizial ba, 2 muntaketa-ofizial.
- Biltegien eskuragarritasuna (edukiera m2-tan).- Gutxienez 150 m2.
- Garraiorako ibilgailuak.- Gutxienez kabina altua eta 2.000 kg-ko tara duen furgoi bat.
- Zenbait altzari egokitzeko proiektu nagusiak AMAITUTAKO AZKENEKO 3 URTEETAN, bezeroa eta zenbatekoa adieraziz. - **Ziurtatuko da gutxienez LIBURUTEGIETARAKO ALTZARI ESPEZIFIKOEN hornidura BAT honako zenbateko honetatik gorakoa:**

- 1. LOTEA: LIBURUTEGIKO APALATEGIAK (FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK, DVDAK, PRENTSA,

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4glR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4glR3zsC

ALDIZKARIAK, HAURRENTZAKO GAUZAK). 80.053,98 € (BEZIK GABE)

- 2. LOTEA: ARTXIBO GURPILDUNA. 18.568,86 €(BEZIK GABE)

10.5. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.

Ondorengoak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Negozioen urteko bolumena SPKLren 87. artikuluaren arabera AMAITUTA DAUDEN AZKENEKO 3 URTEETAN. Gutxieneko zenbatekoa:

- 1. LOTEA: LIBURUTEGIKO APALATEGIAK (FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK, DVDAK, PRENTSA, ALDIZKARIAK, HAURRENTZAKO GAUZAK). 120.000 € (BEZIK GABE)

- 2. LOTEA: ARTXIBO GURPILDUNA, BILTEGI ETA ALDAGELETAKO APALATEGIAK. 27.000 € (BEZIK GABE)

EZ dira onartuko eskaintzak aurreko kaudimenaren baldintzak betetzen ez badituzte.

11.- BALORAZIO EKONOMIKO ETA TEKNIKOKO IRIZPIDEAK.

Banan-banan aplikatuko zaizkio LOTE bakoitzaren balorazioari, eta puntu eta irizpide guztiak erabiliko dira.

11.1. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK: ..... 100 PUNTU

Prozedura irekia adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpide objektiboak garrantzizko beheranzko ordenan eta adjudikatutako haztapenaren arabera ondoren aipatutakoak dira:

11.1.A ESKAINTZA EKONOMIKOA: (35 PUNTU)

Hurrengo formularekin bat baloratuko da eta Administrazio Pleguan dago.

LOTE bakoitzerako eskainitako guztizko prezioari puntuak ondorengo formula aplikatuz emango zaizkio:

$$\text{Lizitatzailearen puntuak} = \frac{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}{\text{Lizitatzailearen prezioa}} \times 35 \text{ puntu}$$

Aurkezten diren eskaintzen balorazio ekonomikoa kasu bakoitzari dagokion BEZa kontuan hartu gabe egingo da, eta lizitatzailearen zenbateko osoa hartuko da kalkulua egiteko balore modura. Zenbateko osoa partida guztiak batuta lortzen da; partidak, berriz, eskaintzagilearen aleko eta kontratuko prezioaren biderkadura eskaintzan aurreikusitako unitate-kopuruaz biderkatuta.

Hasiera batean, BALIO ANORMALTZAT joko dira honako kasuren batean dauden eskaintzak:

1. Lizitatzaile bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik ehuneko 25 aletan baino gehiagotan baxuagoa denean.

2. Bi lizitatzaile lehiatzen direnean, 20 ehuneko unitate baino gutxiago badute beste eskaintzarekiko.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

3. Hiru lizitatzaile lehiatzen direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino hamar ehuneko unitate baino gutxiago dituztenak. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa zenbatzeko batez besteko horri erreferentziatzat hartuta, ehuneko hamarretik gorako eskaintzak baztertuko dira. Nolanahi ere, proportzioz kanpokotzat joko da 25 ehuneko unitate baino gutxiago aurkezten duenak.

4. Lau lizitatzaile edo gehiago lehiatzen direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino hamar ehuneko unitate baino gutxiago dituztenak. Dena den, haien artean batez bestekoarekiko 10 ehuneko unitate baino gehiagoko eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatuko da azaldu diren kasuetan ez dauden eskaintzekin soilik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

5. Salbuespen gisa, eta kontratuaren xedea eta merkatuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratazio-organoak, arrazoituta, aurreko paragrafoetan ezarritako ehunekoak heren bat murriztu ahal izango ditu administrazio klausula zehatzen agirian.

6. Eskaintzak neurriz kanpokotzat baloratzeko, kontratazio mahaiak enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana kontuan har dezake.

11.1.B BERMEAREN EPEA LUZATZEA: (15 PUNTU)

Material guztientzat gutxieneko bermea 2 urtekoa denez, 7,50 PUNTU emango dira URTE OSAGARRI bakoitzeko GEHIENEZ 4 urtera arte.

11.1.C PRODUKTUARI ETA ZERBITZUARI DAGOZKION KALITATE-PROZESUEN IRIZPIDEAK (10 PUNTU)

Produktuaren eta enpresa lizitatzailearen nahiz hornitzailearen honako alderdiak baloratuko dira:

Lizitatzailea

- Beren kudeaketa eta zerbitzuaren prozesuetan nahiz ingurumenaren kudeaketan ezarritako kalitate-prozesuak aurkeztea.

ISO 9001 edo baliokidea	1 PUNTU
ISO 9002 edo baliokidea	1 PUNTU
ISO 14001 edo baliokidea	1 PUNTU
OHSAS 18001 edo baliokidea	1 PUNTU
Ekodiseinuko UNE 15030 edo baliokidea	1 PUNTU

Hornitzaileak

- Beren kudeaketa, diseinu eta fabrikazio prozesuetan nahiz ingurumenaren kudeaketan ezarritako kalitate-prozesuak aurkeztea.

ISO 9001 edo baliokidea	1 PUNTU
ISO 9002 edo baliokidea	1 PUNTU
ISO 14001 edo baliokidea	1 PUNTU
OHSAS 18001 edo baliokidea	1 PUNTU

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

Ekodiseinuko UNE 15030 edo baliokidea 1 PUNTU

Lizitatzailea eta hornitzailea berdinak badira, honako modu honetan baloratuko da:

Lizitatzailea eta hornitzailea:

- Beren kudeaketa, diseinu eta fabrikazio prozesuetan nahiz ingurumenaren kudeaketan ezarritako kalitate-prozesuak aurkeztea.

ISO 9001 edo baliokidea 2 PUNTU
ISO 9002 edo baliokidea 2 PUNTU
ISO 14001 edo baliokidea 2 PUNTU
OHSAS 18001 edo baliokidea 2 PUNTU
Ekodiseinuko UNE 15030 edo baliokidea 2 PUNTU

11.1.D IRIZPIDE TEKNIKOAK, ERAIKUNTZAREN ETA DISEINUAREN ARLOKOAK (40 PUNTU)

Aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin honako alderdi hauek baloratuko dira:

1. LOTEA:

- Materialak eta egitura (oinarrizko lehengaia, lodierak, dentsitateak, burdineriak, muntaketaren prozedura)

1 mm-ko edo goragoko lodierako metalezko apalak 2 PUNTU
Apal mailakagarriak, 30 mm-ko edo gutxiagoko altueran zorutik sabairaino 2 PUNTU
Metalezko apalak atzealdeko euskarri soldatuarekin 2 PUNTU
Sistema biratu eta zutiko apala makurtuta jartzeko 2 PUNTU
Egitura muntatze aldera gutxienez M6 torlojuak azkoin enbutituetan hariztatzeko 2 PUNTU
Zoruan gutxieneko bi galgailuen bidez eustea 2 PUNTU
5 cm-tik gorako seinaleztapena estalki magnetizatuarekin 2 PUNTU

- Eraikuntza-formatua (aldakortasuna, moldapena, dimentsioak eta moduluak egin ahal izatea).

Liburutegirako osagarrien bidez pertsonalizatzeko aukera duen sistema:

Apal ateragarriak 1 PUNTU
Aldizkarietarako eta bistan jartzeko apalak 2 PUNTU
Biltegiratzeko apalak 2 PUNTU
Egunkarien erakustegia 1 PUNTU
Aldizkarietarako kaxa iraulgarria 2 PUNTU
Seinaleztapen-profilak apaletan 1 PUNTU
Alboko seinaleztapen-banderak 1 PUNTU
Egunkarietarako hagak 2 PUNTU
Ontzi ateragarriak edo finkoak ikus-entzunezkoen baliabideentzat edo komikientzat 2 PUNTU
Apal mailakatuak (bi altuera) ikus-entzunezkoen baliabideentzat 2 PUNTU

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/17082 sh4gIR3zsC https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202517082sh4gIR3zsC

Sistema ateak jartzeko aukerarekin:

Beirazko ateak zurezko markoekin 1 PUNTU
Beira epeleko ateak beirari zuzenean lotutako bandekin 1 PUNTU
Zurezko ate leunak 1 PUNTU

- Kanpoko akaberak. (gama, akaberen aplikazio-prozesuak)

Metalezko zatien akabera-prozesua epoxi poliesterreko pintura erabiliz, polimerizatuta 200 ºC-ra tunelean, koipegabetu eta korrosioaren aurka fosfatatu ondoren.

5 PUNTU

Akabatu leun matearen aukera. 2 PUNTU

2. LOTEA:

- Materialak eta egitura (oinarrizko lehengaia, lodierak, dentsitateak, burdineriak, muntaketaren prozedura)

Orgen eta errailen ezaugarriak:

Mugimendu leuna: Diseinua izatea orgen mugimendu leun eta isilerako gutxieneko ahalegina eginez.

2 PUNTU

Zehaztapen-errailak: Kalitate handiko errailak izatea orgen mugimendu egonkorra eta lerrokatua bermatzeko.

2 PUNTU

Iraulien aurkako sistema: Segurtasun-mekanismoak izatea orgak mugimenduan ez iraultzeko.

2 PUNTU

Segurtasun-ezaugarriak

Fotozelulak: Oztopoak detektatzen dituzte korridorean halakoak daudenean ez mugitzeko.

2 PUNTU

